


HEZKUNTZA ESKAINTZA
·2025·
SANTA KLARA
HONDALEA





**EGUN BAT
SANTA KLARAN**

Haur Hezkuntza +
Lehen Hezkuntza
(1 - 2 mailak)
4tik 8 urtera
10:00 - 14:00

**IRLA
MISTERIOTSUA**

Lehen Hezkuntza
(3 - 6 mailak)
8tik 12 urtera
10:00 - 14:00

**SANTA KLARAKO
ALTXORRA**

Bigarren Hezkuntza
12tik 16 urtera
10:00 - 12:00

**SANTA KLARA
DESKUBRITZEN**

Batxillergoa
Heziketa - zikloa
Talde sozio - kulturalak
10:00 - 12:00


NOLA EGIN ERRESERBA

·Aukeratu gehien interesatzen zaizun jarduera

·Jar zaitez harremanetan Cristina Enea Fundazioako Hezkuntza Sailarekin erreserba formalizatzeneko, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara.

·Tel.: 943 48 35 00 (luz.: 9719)

·E-posta: cristinaeneabisitak@donostia.eus



EGUN BAT SANTA KLARAN



- ✦ 4tik 8 urtera
- ✦ 4 orduko iraupena
- ✦ Hondaleara bisita sartzen da.
- ✦ Bazkaltzeko tartea aurreikusten da.

Eskola-taldeek, bi laguntzaile bereziren eskutik, hain famatua eta aldi berean ezezaguna den uhartearen sekretuak ezagutuko dituzte. Maren Andoin azken farozainaren ilobak osabaren istorio zaharrak kontatuko dizkie, eta Txomin Iradier esploratzaile nekaezin eta naturzale sutsuarekin batera, leku berezi horrek dituen altxor txikiak ezagutuko dituzte.

HELBURUAK:

- ◆ Bizi-eredu jasangarriagoa sustatzea, gizalegezko eta errespetuzko balioak eta jarrerak transmitituko dituen, bai ingurune naturale-tan, bai hiriko gainerako bizikidetzaguneetan ere, Santa Klara uhartearekiko lotura-sentimendua sortuz.
- ◆ Irla Donostiako txoko berezi gisa erakustea.

EDUKIAK:

- ◆ Gure ingurune hurbilean aurki ditzakegun bizimoduak bertatik bertara behatzea.
- ◆ Santa Klarako animalia eta landare esanguratsuenak.
- ◆ Santa Klara uharteko pasadizo eta bitxikeria historiko

IRLA MISTERIOTSUA



- ✦ 8tik 12 urtera
- ✦ 4 orduko iraupena
- ✦ Hondaleara bisita sartzen da.
- ✦ Bazkaltzeko tartea aurreikusten da.



Itsasoa eta lurra, mendia eta hondartza, zelaia eta zuhaitzia... Uhartea honek ia denetarik dauka! Uharteko ibilaldi honetan, bertan dagoen biodibertsitatea ezagutzeaz gain, jolasen eta pisten bidez Kontxako badiaren erdian dagoen uhartetxo horretan ezkututzen diren istorioak ezagutuko ditugu. Imajinatzen duzu nolakoak izango ziren Santa Klarako itsasargiko negu luzeak? Eta ia hutsik dagoen uharte bateko bizitza? Zatoz gurekin ezagutzera!

HELBURUAK

- ◆ Ingurumen-arazo jakin batzuen aurrean jarrera kontzienteak garatzea, indibidualak eta kolektiboak.
- ◆ Santa Klara uhartearen historia ezagutzea.

EDUKIAK:

- ◆ Itsasargien funtzioa eta farozainen lanbidea.
- ◆ Artearen eta naturaren arteko lotura.



SANTA KLARAKO ALTXORRA



- ✦ 12tik 16 urtera
- ✦ 2 orduko iraupena
- ✦ Hondaleara bisita sartzen da.



Santa Klara uharteak, itsasoz inguratua, haizeak astindua eta kresalak zipriztindua, ez dirudi bizitzeko leku erraza denik; hala ere, leku aproposa da hemen babesa aurkitu duten landare eta animalia batzuentzat. Uhartera egingo dugun bisita honetan, bertatik bertara ezagutuko ditugu irlako flora eta fauna, bertako ezaugarriak eta gizakiaren eragina. Gainera, Kontxako badia eta uhartearen sortu zituzten prozesu geologikoak ezagutuko ditugu, Donostiako inguru paregabearen paisaia moldatu zutenak.

HELBURUAK:

- ◆ Hegaztiak behatzeko eta aztertzekeo interesa piztea.
- ◆ Santa Klara uharteko natura-inguruneko elementu nagusiak eta haien ezaugarriak identifikatzea, ulertzekeo, balioesteko eta errespetatzeko.
- ◆ Ingurune hurbileneko eta planetako aniztasun biologikoaren garrantzia baloratzea.


EDUKIAK:

- ◆ Kontxako badiaren eraketa eragin zuten prozesu geologikoak.
- ◆ Santa Klara uharteko flora eta fauna bereizgarria.

SANTA KLARA DESKUBRITZEN



- ✦ Batxilergoa / Heziketa-zikloak / Sozio-kulturalak
- ✦ 2 orduko iraupena
- ✦ Hondaleara bisita sartzen da.



Leku bat ondo ezagutzeko, ezinbestekoa da lasai bisitatzea, bertako bideetatik galtzea eta bertako xehetasun txikiak gertutik ikustea. Santa Klara uhartera egingo dugun bisita honetan, Hondaleaz gozatzeaz gain, gordetzen dituen istorioak eta uhar-tea leku berezi bihurtzen duten balio naturalak ezagutzeko aukera izango dugu



HELBURUAK:

- ◆ Santa Klara uhartearen historia ezagutzea.
- ◆ Landareen eta animalien kontserbazioan eta zaintzan jokabide aktiboa sustatzea.
- ◆ Santa Klara uharteko natura-inguruneko elementu nagusiak eta haien ezaugarriak identifikatzea, ulertzekeo, balioesteko eta errespetatzeko.

EDUKIAK:

- ◆ Itsasargien funtzioa eta farozainen lanbidea.
- ◆ Artearen eta naturaren arteko lotura.



**cristina
enea**
FUNDAZIOA

Fundación Cristina Enea Fundazioa

www.cristinaenea.eu

943 45 35 26

cristinaenea@donostia.eu



CaixaBank

Patronoak:

Patronos:



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ORAIN**
Es futuro

Babesle iraunkorra:

Colaborador permanente:

añarbe
aguas Durak